

Kapitalismo aurrerakoia



JUAN MARI ARREGI

Munduko kapitalismoaren eliteak joan den urtarrilean Suitzako Davosen egin zuen azken bileraz geroztik, erasoaldi ideologiko eta mediatiko bat antzeman dugu, sistema ekonomiko hori defendatzeko eta babes-teko argudio "sozialagoak" erabiliz. Argi dago goi-bilera hartako aitortu gabeko erabakietako bat izan zela. Erasoaldi horrek ideia hau sartu nahi digu buruan: kapitalismoak, sistema ekonomikorik onena izateaz gain, eta gizarteko sektore askorentzat oso basatia izan arren, aurpegia humanoa du, eta akziodunei dibidenduak ematen badizkie ere, gizarte-ongizateaz ardurutzen da.

Testuinguru horretan, Mondragon Taldearen sustraietatik sortutako Arizmendiarieta Fundazioko lehendakari Juan Manuel Sindek *¿Es posible un capitalismo progresista?* (Posible al da kapitalismo aurrerakoi bat?) artikulua argitaratu du hainbat hedabidetan. Sindek azpimarratu du Jose María Arizmendiarrera euskal kooperatiben sortzailearen aipu bat: "Ideiek bereizi egiten gaituzte, beharrek batu", eta ondorioztatu "kapitalismo aurrerakoi bat eraikitzen joatea ere gure esku dagoela, aurrerapen ekonomikoaz ez ezik, pertsonen ongizateaz ere arduratuko dena eta balio moraletan oinarritutako pragmatismoa bilatuko duena".

Ez, ezin da kapitalismo aurrerakoi bat eraiki. Kontraesana da, bere hitzetatik hasita. "Kapitalismo aurrerakoi" horrek ez lioke utziko filantropikoa eta limosna zalea izateari: langileak matxinatuko diren beldur, apurrak edo soldata-hobekuntza miserableak eskaintzen saiatzen da. Kapitalismoak -egituraz basatia eta desberdintasunaren sortzailea dena-beti bilatuko du galerak sozializatzea eta etekinak pribatizatzea, kosturik txikienarekin. Pandemiarekin ikusten ari gara. Ez ditu balio moralak ulertzen, burtsan dituen negozioen balioari baino ez diolako kasurik egiten. ●



ENERITZ ARZALLUS

Denbora gure alde

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Bertako elikagai freskoak eskuratzeak eta prestatzeak denbora bat behar du eta konfinamenduan jende askok denbora hori berreskuratu zuen, eta hobeto sentitzen zela jabetu zen. Gure ardura da erabakitzea zeri ematen diogun gure denbora" Miren Saizen hitzak dira, Mikela Untsain eta Ane Gorosabelekin batera *Puska dezagun izotza* solasaldi zikloan egin zuen mahai-inguruan esandakoa. Ziklo beraren baitan, Jakoba Errekondok denborari buruzko gogoeta hau utzi du: "Landareak zaintzea arte bat da, itxaroten jakitearen artea. Baratzte edo lorategi bat duenak, badaki: landareekin lan egiteak denbora ematen digu. Landareen zikloetara joango da gure sentitzeko eta bizitzeko era. Landareak, dena korrika eta presaka egiteko bizimodu honetatik pixka bat atera egiten gaitu eta lasaitu egiten gaitu, beste bizimodu batzuk badaudela erakusten digu". Argia.eus webgunean ikusentzungai dagoen ziklo honetan, Beñat Irasuegik denbora libre aldarrikatu du, "ezer egin gabe egoteko denbora". Pandemiak ohiko aisialdia eten izana baliatu behar dugula dio, denbora libre berreskuratzeko. Azkenaldian, kapitalismoa gure denbora libreaz ere jabetua baita aisialdi produktibistaren bidez: herritarrek jada ez du lanean eraikitzen bere nortasuna, baina bai denbora librean garatzen dituen jardueren bidez, lehia, markak haustea eta superazio pertsonala goretsiz.

Denboraz mintzatu zen azaro bukaeran Amador Fernández-Savater ere *El Salto* hedabidean, Sarah Babiker kazetariarekin. Gure sentsazioa beti denboraren aurka gabiltzala baldin bada, ez garela iristen, denboraren pistola lokian dugula bizi garela sentitzen badugu, pentsatu beharko genukeela denborarekin dugun harremana. Berez, izaki bizidunok, denbora baino ez garela eta objektiboki ez dela erreala sarri argudiatzen duguna, "zeregin asko ditudalako nago denborarik gabe". Fernández-Savaterren iritziz, gure bizitzak erabat prekario izatearen ustea dago itolarri horren oinarrian, etengabe guztiarekin konektatzen ez badugu dena lurrunduko den beldurra. Horren aurrean, prozesuek ematen digute patxada eta oinarria, Fernández-Savaterren arabera. Prozesu bat martxan dela eta horrek bere fruituak emango dituela jakiteak, ez emaitzak berehalakoan eta gaur jasoz, baina bai sakoneko eraldaketa sendo bat biziz bihar. Denbora ezberdinak daudela eta herri mugimenduek horiek kudeatu behar dituztela azaldu du: berehalako premiei erantzutea, herritarren artean prozesu bat sakon lantzeari denbora eskaintzea, eraldaketa proiektu zehatzak hasi eta buka epe ertain batean egitea... Prozesu batzuk ez direla ikusten dio, baina sakoneko olatua direla, eta olatuaren kalparra bezain beharrezkoak eraldaketa batean. Eta itsabeherak garrantzitsuagoak direla itsasgorak baino, ondoeza gehien orduan pairatzen baita eta jendea zaintzea inoiz baino beharrezkoago baita sasoi horietan.

Eta zuk, ARGIA Jende estimatu horrek, bizitzan zeri eskaintzen diozu egunero denbora orain? ●